

CARLOS PANERA MASKARADA ANTZERKI TALDEKO ZUZENDARIA

«Udalak martxan egoan antzoki bat erosi ebala pentsau eban, eta ezer barik aurkitu eban, barrua hutsik egoalako»

I.B.

Carlos Panera ezaguna da antzerkigintzan, ez bakarrik Maskarada taldearen sortzaileetako bat eta gaur egun bere zuzendaria dalako, baita horren inguruan asko hausnartu daudelako. Panerak Campos antzokia gertu-gertutik ezagutzeko aukerea izan eban.

■ Zelan gogoratzen dozu zeuk Campos antzokia?

Gaztetan ezagutu neban. Antzerkia eta musika asko izaten zan hor, sasoi haretan. Oraindino gomutetan naz Luis Llach entzun genduala bertan. Halandabe, goiko aldean, sarrera herrikoiak pagetan zituenek beti egozan protestetan entzun bai, baina ez ebelako ezer ikusten. Gogoan dot hori.

Gerora, Trueba enpresearen azkenengo urteetan, pikutara joan zan programazinoa. Uda sasoiaren emonaldi komertzialek arrakasta lortu eben, baina Astoria kateak lortu eban merkatu hori eurenganatzeari. Truebak porrot egin eban, ez dakit nik eurek txarto egin ebelako, edo zorte txarra beste ez ete zan izan, baina

apurka-apurka eukien guztia saltzen hasi ziran.

Udalak erosi aurretik, Arriagak hartu eban antzokia, baina bigarren mailako azpiegitura lez, beti Arriagaren atzetik. Maskaradak sasoi haretan, 90eko hamarkadearen hasieran, ospatu eban bere X. urteurrena, hor, Campos antzokian, *Marxkarada* izeneko obregaz.

Uriko taldeok aukerea izaten genduan bai, antzokia erabilteko, baina bakotzak ahal eban modura moldatu beharra eukan, laguntasun eta indar guztiak Arriagara joiazalako.

■ Udalak Campos antzokia erosi ebala ikusitakoan, uriko taldeek aukera gehiago izango zenduela pentsau zenduen?

Egia esan, bai. Gertatu zana izan zan, antzokia itsu-itsuan hartu ebela, zer erosten egozan begiratu barik. Nik uste zira sartu eutsiela. Sinistu ezina badirui be, erosi ostean kontratu ziran kamerinoak aspaldi salduta zituela, gaur egun Euskalduna Klinikea dana egiteko. Baina ez kamerinoak bakarrik. Truebak saldu zitekean guztia atara eban hortik Uda-

lari antzokia saldu baino arinago, baita butakak be. Udala sartu zanean, hutsik aurkitu eban antzokia.

Begitantzen jat eurek martxan egoan antzokia topatea espero ebela, eta ezer barik aurkitu ziralako. Egoera zein larria zan egiaztatu arte, egia da ilusino puntu bat isiotu zana antzerkigintzan genbilzanon artean. Alperrik izan zan.

Badakit geroztik ahaleginak izan dirala zeozer egiteko Aldundiaren, eta neurri baten baita Udalaren aldetik be, baina diru larregi behar zan hori erabarrizteko. Orain barriz, mendeurrenagaz, badirudi egiten hasiko dirala.

■ Udalak antzokia barritze-ko asmoa dauka. Hor zer egin leiteken be aitatu izan dabe askotan. Zuok, urian behar egiten dozuen taldeok, zer eskatuko zenduke?

Bilbon, neure ustetan behinik behin, oinarritzko arazo bi daukaguz: lehenengoa, duda barik, hezkuntzea, aktore barriak sortu eta trebatzeko lekuri ez dagoela. Ez Bilbon, ez Euskadi osoan ez dago arte ezzenikoen ganeko ezer, horren inguru-



EGUNKARIA

PROTESTAK

«Goiko aldekoak beti egozan kexuka, ezer ez ebelako ikusten»

LEKURIK EZ

«Bilbon ez dago ez ikasteko, ez produzitzeko, ez obrak egiteko bape lekuri»

ruan proiektu sendo bat edo gitxieneke giro bat sortzeko balio izango dauena. Dagoen bakarra pribaua da, kontrolik bakoa. Ez formakuntzea, araudiak ede ekonomiaren aldetik, zentro horreetan ez dago ez elango kontrolik. Hemen ikasi gura dauenak Madrilera joan beharra dauka, Arte Dramatiko Eskolara, edo Bartzelonako Antzokira, katalanera. Horrek dira hurren dagozan eskolak.

Administrazioak ez deuse dagozan preminei erantzun, eta uste dot albit arinen, zeozer egin beharko leukela.

Bilbon daukagun beste arazoa leku faltea da; taldeok ez daukagula obrak sortu edo produzitzeko lekuri. Gure kasuan, esate baterako, Maskaradakook obaren bat egiten dogun bakotxean kanpoko an-

tzokiren bategaz tratatu egiten ahalegindu behar izaten gara. *El Cartero de Neruda* egiteko, Zornotzara joan behar izan genduan; *La importancia de llamarse Ernesto* egiteko, Basaurira, eta *Ikaro*, barriz, Santurtzin egin genduan.

Gipuzkoan Sarobe eskolea daukien modura, Urnietan, Bilbon be leku baten preminan gagoz antzerki lanen produzi- noa non egin eukiteko, eta gero obra horreek modu profesionalean edo alternatiboan non eskaini izateko.

Campos Antzokia oso leku aproposa izan leiteke bai eskolea bertan ipinteko, bai sortzeko eta produzitzeko egoitzea lez. Baina zer egin behar dan ondo hausnartu beharko dabe eta gero bitartekoak ipini egiten dana ondo egiteko.

«barritze beharrak zientifikoki» eginaz, aditu horren berbetan.

Masek platearen kasua aitatu dau. Hasiera baten agertokiraino altxetako mekanismoa egoala gogoratu dau, modu horretan behegane guztia batu eta antzerki saioak egiteko ez eze, bestelako ospakizunetarko be erabili eitekean lekua. «Ugazabek mekanismoa baliogabetu eben, eta ez dakigu konpontzerik egongo dan edo ez», dino.

Espazioa da daukien arazorik handiena, baina ez bakarrik. Antzokia egin zanetik, asko aldatu dira gune publikoen ganeko arautegiak eta gero eta zorroztzagoak dira zinema, dantzaleku, antzoki eta enparauek bete behar dituen segurtasun baldintzak. Hori, eta ezinduei sarbi-dea errazteko ipini beharko diranak. Gura zein ez, horreek be asko balditzatuko ditu Bilboko agintarien asmoak.

Mas arkitektoa danez, berak emon behar deuse erantzuna kulturea edo antzerki munduetako arduradunek mahai ganean ipini deuseen asmo, zalantza eta aukera guztiei. Berak esango deuse Campos Eliseos izan zana, barriro be ohizko antzoki izatera itzuli leiteken, beti be



MARISOL RAMIREZ / ARGAZKI PRESS

Campos antzokia da Bilbon dagoen art nouveau estiloko erakin bakarra.

Arriaga bera baino txikiagoa, jakina; edo, gehiagorako aukerarik ez dagoelako, antzerki mota garaikideagoei zuzenduta egon beharko dauen.

Balioa izango dauen eraikina

Mas arduratuta dago Udalak emon deusean aginduagaz. Berak ondo daki teknikoki arazorik ez dala egongo eraikina barritu eta ederra izateko. Horrek ez deuto burukominik eragiten. Arazoa da zerbaierako balio izango dauen eraikina berreskuratzea. «Alperrik da aretoa barritu eta txukuntzea, gero ez badau ezertarako balio. Nik ondo dakit sufritzen dauen hondamen fisikotik ataratea posible dana; arazoa beste hori da, ez daitela antzokia beste hondamen okerrago batean jausi. Nortasunaren hondamenetik salbatu behar dogu antzoki hori», azpimarratu dau Masek.

Txostena lau edo sei hile barru egongo da alkatearen mahai. Dana dala, bide horretan preminazko egitekoten bat agertuko balitz, segiduan erantzuteko prest dagozala esan dau Masek. Horren ostekoak izango dira Campos antzokia edo izango danaren ganekoak.